




# Pil-pilean

TURKIA Soraluzeko hilabetekaria  
2025eko otsaila · 419 alea

## EGUNEAN BEHIN EGUNEROKO PIZGARRI



**EUSKARALDIA** MARTXOAK 21, OSTIRALA, 19:00ETAN

# HAMAIAKOAREN AURKEZPENA

Ostean, musika emanaldia eta dastaketak  
Plaza Zaharreko karpán





# PIL-PILEAN 419

2025ko otsaila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

## Aurkibidea

- |    |  |  |
|----|--|--|
| 4  | <b>Bote prontuan</b> Silvia Arribas                              | IRITZIA  |
| 6  | <b>Argazki bidez</b> Garaguneko artisten erakusketa              | 3 <b>Neuretik</b> Juan Fernandez Conde<br><i>Atxikimenduaren b(a)soetan</i>                      |
| 8  | <b>Zer berri</b> Aktualitateko albisteak                         | 14 <b>Gutunak</b> Oskar Aldazabal <i>AKontrol faltak eragindako arrakala konpontzeko eskaera</i> |
| 16 | <b>Erreportajea</b> Egunean Behin                                | 14 <b>Komiki tira</b>  |
| 22 | <b>Kirola</b> Mendi irteerak                                     | 15 <b>Hausnarketa</b> Nola bizi izan dituzu Aratosteak edo karnabalak?                           |
| 24 | <b>Kultura</b> Leturiondoren hitzaldia                           | 15 <b>Puntua</b> Nerea Isasti <i>Non dago zibismoa?</i>  |
| 26 | <b>Zerbitzuak</b> Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... |  |



**Pil-plean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-plean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

Ander Gomez  
ander@pilpilean.eus

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi  
**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-plean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**

**GOKI**  
erreformak

**SORALUCE**



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak) diruz lagundua



**SORALUZEKO UDALA**

# Atxikimenduarien b(a)soetan



JUAN FERNANDEZ CONDE

**G**aur Peiok amari galdetu dio, negarrez. Ez du erantzunik jaso. Atzo Brahimek aitari eskatu zion, oihuka. Ez zuen erantzunik jaso. Bihar Ireberrek amatxoren arreta jasotzeko ahaleginak egingo ditu, hanketan joz. Ez du erantzunik jasoko. Hutsune bat. Krater bat. Eta bat-batean, Big Banga. Irtenbiderik bilatu ez duten emozio edo energia guztiak eztanda egin, eta koadro elektriko bat balitz bezala, burmuinaren argi indar guztiak amatatu egiten dira. Atzera bueltatu ezinda. Argirik gabeko munduan murgilduz.

Zein zaila den hainbeste maite ditugun pertsonen besoetan lokartzea, lasaitzea, sentitzea. Hain gertu eta hain urruti. Umetxoak gurasoen besoak baso hotz eta ilun bilakatzen dituean, etorkizuna utopia izango balitz bezala irudikatzen du, antsietatearen lehen sintomak sentiaraziz eta bere nortasunaren haziak ustelduz. Euskadin, 1.347 adingabe daude babespeko zentroetan bizitzen eta horietatik 62 6 urtetik beherakoak dira. Guztiak harrera hartzeko zain daude, familia baten esperoan. Teknikoen babesean egunerokotasunaz jabetzen, baina etxearen usaina, beroa eta maitasun faltarekin amesten, egunero, gauero, betiko. Azalean tatuatu den iragana beste modu baten margotzen ikasten.

Erizain laguntzaile moduan, Psikiatriako unitate batean lan egiteko aukera izan nuen eta bertako egoiliarrek, gazteak gehienak, familiarekiko atxikimendurekin arazoak izan zituzten; jaio aurretik (sabelean) edo jaio ostean. Era arrunt baten esanda “bizitza gogorrak” izan zituzten bizitzako lehen etapetan eta, orduz geroztik, bizi beharrean, bizirautean igaro dute euren ibilbidea.

Urteotan asko ikasi dugu etorkizuneko umeak hezteko eraz, baita hezkuntzak gaur egungo gizarteak eraldatzeko dituen aukerez, baina begira inguru hurbilenera... Ume, nerabe edo gazte izatea ez da batere erraza. Ezta guraso ere. Horregatik minduak izan diren pertsona hauen testigantzak ezagutzea ezinbestekoa da. Zelako lan gogorra. Zauri baten antzera kutsatuta dauden testigantzak entzutea. Eta ulertzea.

Egoera normatiboetatik ihes egiteko ahalegina egin behar dugu. Erronka pertsonal bat izango balitz bezala, hori ere baita auzolana. Parean dugun egoera ulertu eta errespetuz entzun, epaitu gabe. Gero eta gehiago entzuten den “tribu” hitza barneratuz.

Badaude irtenbiderik ez duten arazo sozioekonomiko edota emozionalak, baina komunitate sano batentzako ez daude konpondu ezin diren arazoak, beste modu batean egokitu ahal diren irtenbideak baizik. Hau guztia badakizu. Badakigu. Soilik bestearekin konektatzen falta zaizu.

**BIZITZA GOGORRAK  
IZAN ZITUZTEN  
BIZITZAKO LEHEN  
ETAPETAN ETA  
BIZIRAUTEN IBILI DIRA**

# “Osasun fisikoan, psikologikoan eta sozialean eragiten du”

---

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: FERNAN OREGI TXURRUKA

---

Silvia Arribas Galarraga (Soraluze, 1969), Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziatua eta katedraduna da, Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan doktorea Psikologia Atalean eta gaur egun, EHUko irakaslea. Soraluzen egon berri da *Mugimendua osasun iturri* hitzaldi-tailerra ematen jendartEkin-en baitan.

## **Zergatik diozu mugimendua osasun iturri dela?**

Gero eta gehiago entzuten dugu toki guztietan kirolak edota jarduera fisikoak gaixotasun asko ekiditen dituela, sedentarismoaren aurkako botika dela, eta gainera, itxuroso jartzeko balio duela. Munduko Osasun Erakundeak ere, hainbat ikerketen ondorioz, hau egiaztatzen du. Baina kontuz, gauza guztiak bezala, neurrian eta taimainan.

## **Zein litzateke neurria?**

Garrantzitsuena praktikatzailearen sasoi fisikoak eta norberaren mugak ezagutzea litzateke. Hortik aurrera, jarduera fisikoaren jasangarritasuna bilatu behar da. Gustuko jarduera izan behar da. Medikuek esaten dizulako bakarrik egiten baduzu, oso gaizki zaudenean egingo duzu, baina pixka bat hobetzean, ez bazaizu gustatzen, laga egingo duzu. Norberaren gozamina ere bilatu behar da.

## **Zeintzuk dira osasunaren ardatzak?**

Osasuna hiru ardatzetan oinarritzen da: osasun fisikoa, osasun mentala eta osasun soziala. Badirudi jarduera fisikoak hiruretan eragiten duela. Medikuek ozen aipatzen dituzte onura fisikoak, eta gero eta zabalduago dago praktika mota hau egiterakoan askatutako endorfinak onura psikologikoak dakarrela. Bestalde, taldean egindako jarduera fisikoak dibertigarriagoak diren neurrian, “engantxatzen” dute. Baina beti ezin da taldean egin.

## **Beraz, taldean aritzeak onurak ditu?**

Bai. Adibidez, batzuetan talde kirolak, lehiakortasuna dela eta, ez dira oso ondo ikusiak izan. Baina, modu egokian landuz gero, heziketarako oso onuragarriak izan daitezke. Gaur egun, badirudi umeei ez diegula frustratzen

lagatzen eta ez dute ikasten zer den frustrazioa. Horrek nerabezaroan arazoak ekartzen ditu. Kirolak horretan asko lagundu dezake, norberaren gaitasunak eta mugak ezagutu eta hobekuntzaren bidea ikusi eta ikasteko. Baina ondo bideratzen jakin egin behar da, noski!

## **Zer diozu Eskola Kirolari buruz?**

Eskola kirolean eta gaztetxoengan, batez ere, egin behar dena da pertsona bezala ondo hezi eta kirolari trebeak egin. Testuinguru horretan sarri agertzen da frustrazioa; askotan, nahiz eta zuk oso ondo egin, egoerak ez irabaztera eraman zaitu. Orduan, horren zergatia aztertu, baloratu eta ikasi. Ongi egindakoaz poztu, gaizki dagoena hobetu eta garaipena iristean, ospatu. Hori ere landu eta ikasi egiten da.

## **Gurea gizarte inaktiboa da?**

Baietz esango nuke. Gizakiok jaiotzetik mugimendua dugu komunikatzeko lehen tresna. Mugimendu ahalmen hori hazten garenean aberasten doa, baina adin batetik aurrera mugatzen hasten da. Muga horiek ekiditeko mugimendu intenzionatua bultzatu behar dugu eta gizarte honetan ez diogo mugimenduari behar beste denbora eskaintzen. Helduok denbora bilatu beharko genuke. Gaztetxoak, berriz, nire garaikoak baino gutxiago mugitzen dira. Umeak eskolan eserita egoten dira ordu asko, patioan askotan ez dira mugitzen. Horrek esan nahi du gaitasun motrizak ez dituztela behar bezala garatzen. Ondorioz, gorputzak ez du jakingo ze mugimendu egin behar duen, adibidez, jausiz gero, babesteko. Umeak eta helduak ere, ahalik eta gehien mugitu behar dira.

## **Gurea gizarte inaktiboa da?**

Ahal den guztia mugitzea, igogailua beharrean eskailerak, Plaentxian aldapa asko dago, bihotzeko gaitzik ez badaukazu, ona da gora eta behera ibiltzea. Adin batetik aurrera indarra ere oso inportantea da, beraz, indarra landu. Hori bai, bizkarra zainduz, mugimenduak modu egokian egin. Herrian badago kirol eskaintza-aholkularitza, ezta? Hori aprobetxatzea iruditzen zait egokiena. Adituaren laguntzarekin norberarendako plangintza bat egin eta mugitzera! Eta taldean egiteko aukera izanez gero, hori ere probatu.



# Erakusketa arrakastatsua

**TESTUA ETA ARGAZKIAK** UBANE MADERA ZANGITU

Egunak jarduez beteta izaten dituzte Garagune zentroko erabiltzaileek. Euren nahiak, gustuak, jakin-minak, autonomia... aintzat hartu eta lantzeko ekimenak egiten dituzte. Bergarako zentroan, asanblea bitartez aukeratzen dute zer egin eta badaramatzate hainbat hilabete artelanak egiten. Egindako 14 margolanekin erakusketa egin dute otsailean Soraluzen. Parte hartu dutenen artean, Iban Zarobe, Bakarne Lizarralde eta Josu Etxabe soraluzetarren margolanak izan dira ikusgai. Egin duten lehen erakusketa izan da eta arrakasta handia izan du. Herriko bisitariez gain, Gipuzkoako Garaguneren bestelako zentroetatik etorritakoak ere izan dira, argazkian, Eibarkoak. Hura bukatuta, erronka berriari eutsi diote dagoeneko: Bergarako Ndank-Ndank elkarteari laguntzeko lanean hasita daude buru-belarri.





# 7.638.868 euroko aurrekontua

INBERTSIO NAGUSIA OLALDEAKO PLAN BEREZIA HASTERA BIDERATUKO DA

## TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA

Udalbatzak iazkoa baino %37 handiagoa den aurrekontua onatu zuen 2025erako, otsailaren 12an egindako osoko bilkuran. Udal Gobernuaren aldeko botoekin (6) eta oposizioaren abstentzioarekin (5) onartu zuten aurrekontu proiektua.

Onartutakoaren arabera, 7.638.868 euroko aurrekontu errealak izango du Udalak. Totala, berriaz, 9.612.708 eurokoa izango da, kontuan hartuz gero Ezozibidea Berritzen proiektua garatzeko Jaurlaritzak emango dituen 1.973.840 euroak.

### 3 Milioi Debabarreneko Ponentziatik

Kontuak kontu, iazkoa baino dezente handiagoa izango da aurtengo aurrekontua. Igoera hori, batik bat, 2025erako aurreikusitako inbertsio nagusiak eragin du. Unai Larreategi alkateak azaldutakoaren arabera, Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 3.375.000 euroko laguntza onartu du Olaldearako Debabarreneko Ponentziaren baitan 2025-2028 bitarteko.

Orain, zehazteko dago kopuru total horretatik 2025ean zenbat jasoko duen Soraluzek. Dena den, Udalak eskatuak ditu milioi bat euro Olaldearako eta beste 450.000 euro Plaza Zaharra ibaiarekin lotzeko



Udalbatza aurrekontu proiektua bozkatzen.

proiektuarendako -ikus inbertsio nagusien taula-.

### Olaldea, proiektu "estrategikoa"

Olaldearako dirulaguntzaren harira, alkateak azpimarratu zuen gobernuarentzat horixe dela notizia "handiena", gai "estrategikoa". "Behingoz aukera izango dugu guretzat

estrategikoa den inbertsio bati bide emateko. Plazentziatarren bizigarritasunean ekarpen handi bat egiteko moduko ariketa da, eta, jakin arren batzuetan burukomin eta abarrak ekarriko dituela halako eraldaketa sakon batek, gogoz eta deseatzan gaude gaiari heltzeko, dagokion intentsitate guztian".

### Inbertsio nagusiak 2025erako

Olaldea	1.000.000 €
Plaza Zaharra-ibaia	450.000 €
Ezozibidea Berritzen	321.466 €
Herria txukuntzeko	199.900 €
Familien esku-hartzeko lana	100.000 €
Brigadarako inbertsioak	58.000 €
Padel-a estaltzeko	52.500 €
Hirigintza proiektuen idazketak	45.000 €
Hezkuntza proiektua	40.940 €
San Andreseko frontoia eta haur parkea eta Ezozikoa	35.000 €
Kultur arloan	22.840 €



**200.000 euro herria txukuntzeko**

Olaldearako inbertsioaz gain, alkateak aipamena egin nahi izan zion herriaren txukuntasunaren gaiari.

Adierazi zuen "urteetan" ikusi dela "degradazio orokor bat" herrian, "zaintza falta" dagoelako eta iragarri zuen aurten "beste saltotxo bat" emango dutela egoera horri buelta emateko.

Ildo horretan, jakinarazi zuen aurrekontutik 200.000 euro inguru bideratuko dituztela zeregin horretara, langileak kontratatzea zein bestelako berritze lanak egitera. "Premia badago, hori konpartitzen dugu ez bakarrik zinegotziok baizik eta baita herritarrek ere. Eta ea lortzen dugun, jendeak benetan sentitzea espazioak

zainduago daudela, eta, ea asmatzen dugun bizigarriago edo gozoago dauden espazioak sortzen. Horrek berorrek -ez da bakarrik estetika hutsa- herritarren gauzekiko errespetu eta zainketa horretan eragin dezakeela pentsatzen dugu".

**"Ondo egitea"-ren garrantziaz**

Bi puntu horiez aparte, alkateak gaineratu zuen, besteak beste, ekimen eta proiektu asko

## "BEHINGOZ ESTRATEGIKOA DEN INBERTSIO BAT BIDERATU AHALKO DUGU OLALDEAN"

daudela aurrekontuan eta ahaleginduko direla denak ahalik eta ondoen bideratzen: "Entzun izan dugu oposizioaren aldetik 2024an ez garela planteatutako guztiak egitera heldu baina asko egin da, hala ere, eta batzuetan gauza batzuk berandutxoago egiteak ez du zertan gauza txarra izan. Batzuetan pentsatzen dugu zerbait zenbait hilabetetan dominatuko dela eta egin ahala konturatzen gara denbora gehitxoago behar dela, ondo egitea nahi badugu. Gauza ez delako egin egitearren, asmoak bere prozesua eta heltzeko denbora behar du, eta ez da ezer pasatzen azarorako bukatu nahi zena otsailerako bukatzen bada eta gainera, hobeto egingo bada".

### Oposizioarentzat aurrekontu "kontinuista"

Oposizioko alderdiak, EAJ-PNV eta PSE-EE, abstenitu egin ziren aurrekontuaren bozketan. Biek ildo beretik kritikatu zuten EH Bilduren Udal Gobernuaren aurrekontu proiektua, esanez "kontinuista" dela. Kritikatu zuten, baita ere, aurrekontua urtea hasi eta bi hilabetera aurkeztu izana, EHBilduren gobernuak gehiengo osoa izan arren.

Hori bai, oposizioko bi alderdiek onartu zuten Udal Gobernuak kontuan izan dituela aurrekontuari egindako zenbait ekarpen eta adierazi dute horregatik abstenitu direla.

**"Esandakoa ez dute bete"**

Iker Aldazabal EAJ-PNVren bozeramaleak adierazi zuenez,

iazko aurrekontuan iragarritako zenbait proiektu -Plaza Zaharra ibaiarekin lotzekoa, padel pista estaltzea, futbol zelaiko aldagela, familien esku hartzea...- ez dira gauzatu.

"Esandakoa ez dute bete eta, berriz ere, 2025eko aurrekontuan jaso behar izan dituzte gauzatu ez dituzten proiektu guzti hauek (...) 20 hilabete igaro dira udal gobernu hartu zutenetik eta zoritxarrez, herri mailan, ez dugu ezer piztu denaren zantzurik ikusten, alderantziz...".

Halaber, jeltzaleak gogora ekarri zuen martxan dauden zenbait proiektu -Ezozibidea. Gabolatseko zubia, eskolako igogailua...- euren gobernuak "martxan jarritakoak" direla.

Hori guztia esanda, zalantza adierazi zuen "aurten onartu berri den aurrekontuan jasotzen diren proiektuak gauzatzeko gai izango den Udal Gobernu".

**"Aurreko legegintzaldiko proiektu berberak dira"**

Ildo beretik, Patricia Borinaga ordezkari sozialistak azpimarratu zuen EH Bilduren aurrekontuak ez duela "inolako proiektu propio edo berritzailerik aurreikusten". "Proiektuak aurreko legegintzaldian hasitako berberak dira: Ezoz, Kalebarren 24 edo Olaldea (...) Gainera, 2024ko partidak eta jarduerak ekarri dituzte eta horrek, gure ustez, agerian uzten du Bilduren gobernu taldearen kudeaketa nabarmen hobetu daitekeela".

# Indarberritzeko plana

ABIAN DA EUSKARA INDARBERRITZEKO PLANA DISEINATZEKO PROZESUA

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO

**ARGAZKIAK:** ELHUYAR

Badira urte batzuk Soraluzen euskara biziberritzeko azken plan estrategikoa diseinatu zela eta Soraluzeko Udalak eta herriko mugimendu euskaltzaleak aspalditxotik zuten mahai gainean herrirako plan berria prestatzeko asmoa. Hori horrela, iazko udazkenean, Udaleko Euskara Sailak eta Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak plan berria diseinatzeko lehen pausoak emateari ekin zioten eta urtea hastearekin batera, abiatu dute prozesua Elhuyar aholkularitzaren laguntzaz eta Eusko Jaurlaritzak udalerrietan "euskara indarberritzeko eta euskaldunak ahalduntzeko" diseinatu duen Aroa markoaren barruan.


## Beheranzko joera argia

Beñat Sagarna Elhuyarreko aholkulariaren esanetan, datuei erreparatuta, euskararen erabilerak "beheranzko joera argia" erakusten du Soraluzen: "Azken hamarkadetan herri euskaldun izatetik herri ez hain euskalduna izatera pasatu da. Ezagutza 'altua' da, batez ere gazteen artean, baina erabilera bajatu egin da". Sagarnaren esanetan, beherakada eragiten duten faktoreak zehaztea ez da erraza. "Soraluzen asko aipatzen da demografia. Azken urteetan herriak biztanleak galdu ditu eta kanpotik jende



Herritarrak parte hartze saioan. ELHUYAR

asko etorri da euskararen ezagutzarik ez duena". Baina Elhuyarreko adituaren ustez, badira beste faktore batzuk ere, esaterako, "euskara etxean jasotzen duten herritarren kopurua nabarmen jeitsi" dela edo herriz gaindiko fakoreak, sare sozialak eta abar.



**"HAU EZ DA UDALAREN PLANA, HAU HERRI PLANA DA. ASMOA DA DENON PLANA IZATEA."**

BEÑAT SAGARNA, ELHUYAR

## Herritarren parte hartzea gako

Hain zuzen, abiatu den prozesuak egoera horri buelta emateko estrategiak zein izan daitezkeen pentsatzea du helburu eta zeregin horretan, herritarren eta eragileen parte hartzeak berebiziko garrantzia duela irizten dio Sagarnak: "Helburua da herritarrekin prozesu berri bat sortzea, herritarrek eurak esan dezaten orain arte zerk funtzionatu duen eta zerk ez eta ertorkizunean zer egin daitekeen. Garrantzitsua da denon artean egindako plan bat izatea, ondoren, pentsatutakoa denon artean gauzatzeko. Hau ez da Udalaren plan bat, hau herri plan bat da. Asmoa behintzat hori da, denon plana izatea eta horretarako ezinbestekoa da parte hartzea".

Herritarren parte hartzea bideratzeko, urte hasieran, online-galdetegia pasatu zen eta, guztira, 217 herritarren erantzunak jaso zituzten. Horrez gain, zortzi elkarrizketa pertsonalizatu ere egin dizkiete perfil ezberdinetako hainbat herritarri (helduak, gazteak, kirol arlokoak, tabernariak, euskararengandik urrun daudenak...), euskararen inguruan dituzten iritzi eta ikuspegiak jasotzeko. Bestalde, martxora bitartean, hiru parte-hartze saio ireki egingo dituzte herritarrei zuzenduta. Lehenego saioa urtarrilean egin zuten eta hogeiren bat herritarrek etorkizunerako erronka nagusiak identifikatu zituzten. Bigarren saioa, eguazten honetan egin zuten eta oraingoan ere hogeiren bat lagunek lehen saioan



Herritarrak talde-dinamikan. ELHUYAR

identifikatutako erronkei erantzuteko ekintza posibleak zerrendatu dituzte. Hirugarren eta azken saioa, martxoaren 26an, eguaztenean egingo da eta bertan ekintzarik egokienak

lehenetsi eta horiek gauzatzeko egitura definituko dituzte.

### “Soraluzen badago gogoia”

Sagarna baikor da: “Herri bakoitzak baditu bere ezaugarri propioak eta orain arte ikusi dugunarengatik, Soraluzen igartzen da badagoela hizkuntzarengatik kezka eta gogoia zeozter egiteko. Herriak badu interes bat egoera aldatzeko. Egin ditugun saioak ez dira izan penak kontaktu eta negar egiteko, eraikitzaileak izan dira eta hori garrantzitsua da, gaitasuna izatea konturatzeko zer egin den ondo eta etorkizunean zer egin daitekeen eta arreta horretan ipintzeko. Badaude euskaraz bizi nahi duten euskaldunak eta lanerako baliabideak ere bai. Azertatzeko probak egin behar dira eta horretan dihardugu”.



**ZUREKIN BATERA  
IREKITZEN DUGU  
EGUNERO,  
zure negozioa  
bultzatzeko**

Kresala Surf Eskola,  
2023az geroztik

# LOKALIA

Dena tokiko merkataritzarako.  
Dena tokiko merkataritzarentzat.

[laboralkutxa.com/eu/lokalia](http://laboralkutxa.com/eu/lokalia)

LABORAL Kutxan geure aletxoia ipini nahi dugu, **tokiko merkataritzak** gure herri eta hirietako aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

**LOKALIA** laguntzeko jaio da, eta **irtenbide integrala** eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak sendotzeko.

**LABORAL**  
kutxa

# Sugar Ostolaza finalera

ESPAINIAKO XII. FILOSOFIA OLINPIADETAKO FINALEAN IZANGO DA SORALUZETARRA

## TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA

Pozik, oso pozik dago Sugar Ostolaza Soraluze BHI Institutuko 4. DBHko ikaslea Euskadiko Filosofia Olinpiadan erdietsitakoarekin.

Espainia mailako txapelketa da Filosofia Olinpiada. Aurten, XII. edizioa du, autonomiaka jokutzen da eta EA Eren kasuan, 400 ikasle aurkeztu ziren EA Eko olinpiadetara, tartean eta lehen aldiz, Soraluze BHI Institutukoak.

Bada, Sugar Ostolaza soraluze tarra bigarren geratu da EA Eko olinpiadetan, eta are gehiago, martxoaren 28an eta 29an Mallorcan jokatu den finalean parte hartuko du.

Ostolazak azpimarratu duenez, "super eskertuta eta oso pozik" dago eta bere buruarekin harro, "badelako gauza garrantzitsua, eta, lehen aldiz filosofia ikasgaia emanda -zaintzaren gaia, gure kasuan- ikusi dut gustuko ditudala halako gaiak eta oso garrantzitsua dela bizitzan aplikatzea, besteak laguntzea eta enpatia izatea".

Haren Filosofiako irakasle Ainhoa Muñozek esan duenez, berriz, "Sugar ya irabazlea da egin duen guztia eginda (...) Merezi duen aitortzaren seinale izan da Mallorcara joateko aukera irekitzea".

### Dilema Morala

Euskadiko Filosofia Olinpiadetak bost sail dituzte: Marrazki



Sugar Ostolaza diploma eta garaikurra eskuetan dituela, institutuaren kanpoko aldean.

Filosofikoa, Iruzkina, Bideoa, Argazkilaritza eta Dilema Morala. Soraluze bi gazteen kasuan, Dilema Morala sailean sailkatu ziren finalista.

Otsailaren 21ean, Eusko Legebiltzarrean izan ziren EA Eko finalistak. Sail bakoitzetik hiru aukeratu zituzten eta haiek Legebiltzarrean egin behar izan zuten euren lanen defentsa. Bada, Sugar Ostolaza izan zen bere sailean aukeratu zuten hiru ikasleetako bat. Legebiltzarreko oholtzara igo

## EUSKO LEGEBILTZARREAN EGIN BEHAR IZAN ZUTEN LANAREN DEFENTSA

- "urduritasun" handiarekin-lana defendatu eta bigarren puntuaziorik altuena lortu zuen. Garaikurra eta diploma eman zizkioten, berez, puntuazio altuena zuena bakarrik sailkatzen baita Espainiako finalera.

### Partaide asko Dilema Moralean

Horrekin ya poz-pozik zegoen gaztea, baita Filosofiako bere irakasle Ainhoa Muñoz ere. Baina aste honetan, gainera, ezusteko handia bezain polita izan du soraluze tarrek. Izan ere, astelehenean, mezu bidez jakinarazi zioten batzuetan salbuespenak egiten dituztela eta jende asko aurkezten den kasuetan, bakarra barik, bi ordezkari aukeratzen dituztela finalerako. Beraz, Ostolaza ere izango da Mallorcan jokatu den final handian lehian.

**M8**  
Emakumeen  
Nazioarteko Eguna

# #Ni Feminista Naiz

Feminismoa zurekin bat

# GOKI

erreformak

**FATXADA BIRGAITZEAK**  
S.A.T.E.  
FATXADA AIREZTATUAK  
BIRGAITZE TRADIZIONALA  
BALKOIEN BIRGAITZEA

**ESTALKI ETA TEILATUAK**  
ERABATEKO BIRGAITZEAK  
TERRAZA ETA ESTALKI LALUAK  
MANTENTZE LANAK  
SEGURTASUN SOKA FINKOAK

**BARNE ERREFORMAK**  
ETXEBIZITZAK  
LOKAL KOMERTZIALAK  
BULEGO ETA ENPRESAK  
SUKALDE ETA BAINUGELAK

**IRISGARRITASUNA**  
OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA  
IGOGAILU INSTALAZIOAK  
0 KOTA

**BULEGO TEKNIKOA**  
ERAKINEN IKUSGARITZA TEKNIKOAK  
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZURTAGIRIAK  
ERAKUNTZA PROIEKTUAK

**ELGOIBAR**  
943 74 42 23

**SORALUZE**  
943 12 57 41

**BERGARA**  
943 76 53 42

## GUTUNAK

### **Kontrol faltak eragindako arrakala konpontzeko eskaera**

#### **OSKAR ALDAZABAL**

2023ko otsailean Udalak Santa Ana 4 kaleko fatxada bukatu zuen. Hortik hilabetetara, hezetasun arazo larriak agertu ziren. Udaleko Bulego Teknikoko arduradunek ez zuten obra behar beste kontrolatu eta bukatu barik geratu zen eraikinaren atzeko parteko fatxadaren lotura. Egundoko arrakala laga zuten, lurretik teilaturaino; handik ur asko sartzen da.

2023an eta 2024an hainbat bisita egin genizkien arduradun teknikoei arrakala konpon zezaten eskatzeko.

Urriaren 24an udal aparejadoreak esan zigun onartuta zeudela aurrekontua

eta obra egin behar zuen enpresa.

Urtarrilaren 25ean abokatuarekin kontsulta egin eta alkateari idatzia bidali genion, arrakala berehala konpon zezaten eskatuz, hezetasunak barik itoginak baitaude etxe barruan. Gainera, sarri, komuneko argia piztean, diferentzialak salto egiten du, pilatutako hezetasunaren ondorioz.

Horrez aparte, arrakalatik arratoi mordoa igotzen dira; sentsazioa ematen du etxe barruan daudela.

Udal korporazio berria dugu orain dela ia bi urtetatik eta berdin segitzen dugu. Benetako lotsa.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

## KOMIKI TIRA

**EZKERRA** ETA  
**ESKUBIA**  
(POLITIKAZ ARI NAIZ)



## HAUSNARKETA

**Aratosteak edo karnabalak**

Nola bizi izan dituzu aratosteak edo karnabalak?



**MARIA RASCON**  
HERRITARRA

"80ko hamarkadan berriz karnabalak antolatzen hasi zirenean, lehenengotarikoa izan nintzen ateratzen. Zingaroz jantzi nintzen. Garai hartan, asteartean ateratzen ginen gehiago. Ikastolak kalejira antolatzen zuen eta ederra izaten zen".



**IGNACIO ELGETA**  
HERRITARRA

"Etxean harrapatutakoarekin jantzita ateratzen ginen, aittaren traje zaharren bat edo. Gizonak emakumez eta alderantziz. Orduan kantatu egiten genuen asko: 'Aratoste hontako' eta beste kantu asko. Baten batek gitarra zaharren bat ekartzen zuen eta aurrera".



**PABLO MATEO**  
HERRITARRA

"Extremaduran total ezberdina da. Konpartsak ateratzen dira kalez kale, aurrean auto bat dutela. Dena izaten da kolorea, brillantinak, lentejuelak eta musika. Tematika eta pertsonaia jakinik gabe. Eta amaitzeko sardinaren entierroa, sardina eta ardoarekin".



**GEYNE DOS SANTOS**  
HERRITARRA

"Ni sortzez Brasilgo Maceió hirikoa naiz eta han karnabala ia hilabetez ospatzen da. Herrialdeko kulturari edo gertakizunei lotutako gaiak prestatzen dituzte samba eskoletan eta milaka pertsona ateratzen dira kalera. Jai handia izaten da."

## PUNTUA




**NEREA ISASTI**


**Non dago zibismoa?**

**Z**enbatek duzue bizilagun zakar bat? Hezigabea? Ala okerrago, adostutako arauen kontra doana? Agian ez da zuen blokean bizi, baina herrian ikusten duzue. Baina ez badu zuzenean eragiten, hor konpon.

Udalek badute zibismo ordenantza. Soraluzekoan, 29. artikulua txakur-kaka jasotzera behartzen du eta pixa egitean, txakur-jabeak ozpinarekin nahastutako ura botatzera gonbidatu. Kakaren kasuan, ordenantza ez betetzeak isuna dakar. Ordenantzan beste 50 artikulua inguru daude, herriko espazio publikoak ondo erabiltzeko. Ordenantzaren helburua? Bizitza eta zibismoa bermatu, hau da, besteen eskubideak errespetatu. Baina, badirudi ez dela existitzen; txakurren kaka edonon, zaborrak ez dagozkien lekuan, zabortegi inprobisatuak edo egoera penagarrian bizi diren animaliak.

Diskurtsoa gradu bat igoz gero, legea hausteaz ari gara. Hitz potoloez. Legea hautsi eta guztion bizitza ezinezkoa egiten dutenez. Batzuetan marjinalitate gertu bizi direlako, eta, bestetan, zibismoa ezagutzen ez dutelako, gaixotasun mentalak dituztelako eta erakunde batek erabaki duelako gure artean bizi behar direla, nahiz eta edonoiz kablea gurutzatu eta gure osotasun fisikoa arriskuan jartzeko moduan jardun. Honen aurka, ez du inork ezer egin behar beranduegi izan baino lehen?





Zuhaitz Larrañaga, Maria Jesus Arrizabalaga eta Laida Sanchez, Egunean Behingo jokolari gazteenetakook eta nagusienetakook.

# Egunean Behin jokoan kateatuta

2019ko martxoan izan zen Egunean Behin jokoaren estreinaldia. Eibarko CodeSyntax enpresaren eskutik etorri zen tribial estiloko galdera-erantzunen jokoak. Estiloz tradizionala zen, baina euskaraz erabat berritzailea eta segituan erakarri zituen milaka euskaldun jolasera. Soraluzen ere baditu zale ugari eta talde asko; erreferentziatzkoak bi dira: Soraluzeko Egunean Behin eta Soraluzeko Arrano.

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Fernan Oregi eta Ubane Madera**.



**G**utxi izango dira euskaldunen artean Egunean Behin jolasa ezagutzen ez dutenak edo hari buruzko aipamenik entzun ez dutenak.

**G**Euskarazko lehiaketa eta jokoen produkzio urriari ekarpena egitera etorri zen Egunean Behin, 2019ko martxoaren 12an, eta, berehala apurtu zituen muga guztiak.

Sortu eta urtebetera, 100.000 erabiltzaile pasa izan zituen, 75.000 jokalaria aktibo azken astean eta urtebete horretan, 5 milioi partida kontabilizatu zituzten sortzaileek.

### **17. denboraldia**

Gaur gaurkoz, 17. denboraldia bete du jokoak -batez beste urtean hiru denboraldi ditu- eta hasierako boom-a pasatu den arren, oraindik orain euskarazko erreferentziatzko jokoa izaten segitzen du. Adibidez, azken denboraldi honetan 50.000 lehiakide inguru ari da jokoan parte hartzen nazion mailan, bakarka zein taldeka.

### **Egunean bat**

Izenak dioen moduan, egunean partida bat eta bakarra jokatzeko aukera ematen du Egunean Behin jokoak. Partidan, 10 galdera erantzun behar dira, ahalik eta azkarren. Denetariko galderak izaten ditu: euskal kulturarekin, herriekin, pertsonekin eta ohiturekin lotutakoak, matematika ariketak, geografia, historia... Zenbat eta gehiago asmatu, zenbat eta azkarrago asmatu, puntu gehiago. Eta, puntuen arabera, sailkapenenean gora edo behera, jakina. Sailkapena astekoa izaten da, astelehenetik igandera arteko partidak kontuan hartuta.

### **Pikeak**

Taldeka jokatzeko ematen duen aukera horri esker, ehundaka -seguruenik milaka- talde daude antolatuta: herrika, koadrilaka, lantokika, familiaka... Talde bakoitzak bere nortasuna dauka, jokalaria propioak eta bere sailkapena. Noski, jokalaria euskaldunak izanda, pike handiak sortzen dira elkarren artean, batak bestearen puntuazioak eta partidak begiratzen ibiltzen dira jokalaria, helburu moduan hartuta beti txapeldun izaten den horri irabaztea, edo laguna baino aurrerago gelditzea... Horrek guztiak pizgarri handia ematen dio jolasari. Aparte, talde askotan sariak ere badituzte, erakargarritasuna handituz.

### **Dozenaka jokalaria**

Soraluzeko kasuan ere zale asko ditu jokoak, azpialde mordotan eta bi talde nagusitan banatuta, Soraluzeko Egunean Behin eta Soraluzeko Arrano taldeetan, hain zuzen. Soraluzeko Egunean Behin taldeak, adibidez, 207 parte-hartzaile ditu izena emanda, eta azken denboraldi honetan 90 bat lagunek parte hartzen dihardu astero. Segidako orrietan horietako hainbatekin izan gara Egunean Behingo fenomeno horri buruz berbetan: herriko txapeldunarekin, jokoan diharduen nagusienetakoarekin, bi gazteenetakoekin, goitizena erabiltzen duten beste bi lagunekin eta herritik kanpo bizi arren, Soraluzeko taldean jokatzen duten beste bi lagunekin.

# "Asmakizun itzela da Egunean Behin"

**ENARA AGIRRE ARRIZABALAGA** SORALUZeko TXAPELDUNA

Enara Agirre Arrizabalga (Soraluze, 1983) Txapeldun izan da Soraluzeko Egunean Behin taldean, herriko Arranoko taldean zein lantoki duen EHUKo taldean. Oro har, guztira ez daki zenbat bider izan den garaile. Aipatutakoez aparte, bestelako talde txikiagotan ere badihardu, "etxeokak, laneko lagun batzuk...".

## **Zela lortzen duzu hainbeste bider txapeldun izatea?**

Igual konstantziarengatik; uste dut ez zaidala inoiz ahaztu eguneko partida jokatzeari.

## **Gaztetan entziklopedia irakurtzen ei zenuen.**

### **Horrek laguntzen du?**

(Barre) Lau anaia-arrebetatik gazteena naiz, denetatik ikasi dut besteengandik.

Entziklopediak baino ugartzun, hegazti eta halakoen tomoak irakurtzen nituen. Lur hiztegi entziklopedikoa piloa gustatzen zitzaidan eta Wikipediaren fan hutsa naiz. Datuak, izenak... geratzen zaizkit oso erraz; aurpegiak, berriz, ez.

### **Irabazi duzu inoiz saririk?**

Bai. Azkoitin kafetegi batean gosaria eta han zailagoa da lehena izatea, gehiago direlako. EHUn, berriz, -oso maila altua dago eta jende askoz gehiago- lehena egin dut aldiren batean. Baina justu, ordura arteko saria -Errigorako saskia- emateari laga zioten. Arranon, berriz, zozketaz tokatzen da eta tokatu zitzaidan trago-pintxoan. Bestalde, nago ia oparirik ez dagoen talde batzuetan. Egiten

dut gustuko dudalako eta egiten badut, ahaleginduko naiz ahal dudan ondoen egiten.

### **Segitzen dituzu taldekideak?**

Mendotz zegoenean. Pikerik ez geneukan baina antzera joaten ginenez, begiratu egiten nuen. Orain ez.

### **Zein mania duzu**



Enara Agirre Arrizabalaga paseoko jarleku batean, Egunean Behin eskuetan.

### **jokoarekin?**

Beti egiten dut almortzatzen edo lehen kafea hartu ostean, behintzat. Kafea hartu aurretik ez da egin behar eta umeekin gutxiago. Beste mania bat da, eta, bizkorrago egiten da, telefonoa eskuan eduki beharrean, bi eskuak libre izan eta horrela fokalizatzen da dena pantailara.

"PROIEKTU TXIKI BATETIK ABIATUTA HELTZEN DA PILA BAT JENDERENGANA"

### **Zailena egiten zaizun galdera/proba mota.**

Labirintoa ez zait asko gustatzen; nik dena bizkor egiten dut eta hor fijasatu egin behar zara nondik joan. Eta oso zaila egiten zait asmatzea zein urtetakoa den liburu jakin bat.

### **Gustukuen duzuna.**

Historia, herriak airetik, monumentuak...Fijatzen zara

detaileetan eta ikasten duzu piloa.

### **2019an sortu zuten joko. Ze iruditzen zaizu?**

Asmakizun itzela. Code Syntax da enpresa oso txiki bat, eta proiektu txiki batetik abiatuta heltzen da pila bat jenderengana. Geroago eta jende gutxiagok parte hartzen du baina, hala ere, 50.000tik gora lehiakide daude maila nazionalen. Edozein tokitatik egon daiteke jendea parte hartzen. Euskal kulturaz eta hemengo kontuez asko galdetzen dute eta polita da.

## "Gauerditik aurrera egiten dut"

**LINA OLAIZOLA 'GAUTXORI'**

Lina Olaizola (Soraluze, 1957) 5. denboraldian hasi zen jokatzeko. Borja ilobak eman zion haren berri eta gutxi asmatuko zituela pentsatu arren, goitizena jarri eta hasi zen. Ez da batere txarto ibiltzen sailkapenean.

### **Zenbat taldetan zabilta?**

Herrikoan eta lobarekin eta haren bikotearekin. Azken horretan, galtzen duenak bazkaria ordaindu behar du.

### **Eta zer moduz?**

Borjak ez du inoiz ordaindu, beraz oso ondo dabil. Igonek eta nik bai pagatu ditugu (barre).

### **Jarraitzen duzu jendea?**

Bai. Begira ibiltzen naiz ezagunak badira. Eta familiakoen



denboraldiko emaitzak taula batean batzen ditut.

### **Zein mania duzu jokoarekin?**

Nire goitizena dioen moduan, gautxoria naiz. 00:00etatik aurrera egiten dut. Normalean ez naiz oheratzen lehenago, eta ordua pasatu bezain laster

egiten dut jokoak. Beti egiten dut logelan, mobilean, baina ordenagailua piztuta. Han mapa ipintzen dut, badaezpada. Baina Interneten ya ez dut ia begiratzen, denbora segituan joaten da.

### **Galdera gustukoena/zailena?**

Mapak, silabak eta euskal gaiak gustukoak. Txarren landare eta txorien galderak.

### **Jokoa zer iruditzen zaizu?**

Gustura egiten dut eta entretenitu egiten naiz. Positiboa iruditu zitzaidan euskaraz eta euskal kulturarekin zerikusia duen jokoa sortzea. Bestalde, konturatu naiz badudala lehiakortasun puntu bat ez nuena ezagutzen, ze segituan begiratzen dut zer egin duten Borjak eta Igonek.

## "Horrelako gehiago beharko genituzke"

**IÑAKI AMUATEGI 'PLATANUA'**

Iñaki Amuategi (Eibar, 1963) *Platanua* goitizenezarekin jokatzeko du. Lehen hamarren artean ibiltzen da sarri. Zortzi bat taldetan dihardu, "AEK-ko ikasleak, irakasleak, herrikoak, lagunak, familia..."

### **Zergatik 'Platanua'?**

Aspaldiko telebistako iragarkia da, Kanarietako platanua sustatzeko gutxienez egunean bat jan behar zela esaten zuten eta hortik dator "Platanua" rena!

### **Noiztik jokatzeko duzu?**

Jokoa hasi zenetik, 1. denboralditik, hasieran bakarka eta gero taldeka.

### **Zelan hasi zinen?**



Komunikabideetan irakurri nuen eta sortzaileak eibartarrak izanik animatu egin nintzen.

### **Zein da trukoa sailkapenean goian ibiltzeko?**

Trukorik ez, gai ezberdinekin jakinmina izatea besterik ez.

### **Baduzu pikeren bat?**

Bai, batez ere etxekoekin eta lagunekin.

### **Begiratzen dituzu sailkapenak?**

Aste amaieran, igande gauetan normalean.

### **Ze mania duzu jokoarekin?**

Erantzuteko eguneko une lasai bat aukeratzea, beti ez da ordu bera izaten. Lasaitasuna sentitu behar dut eta batzuetan ez da erraza izaten aurkitzea.

### **Galdera gustukoena/zailena?**

Gustukoena kultura eta hizkuntzekin lotutako galderak dira eta gorrotagarrienak labirintoa eta matematika ariketak.

### **Zer pentsatzen zaizu jokoa?**

Horrelako gehiago beharko genituzke euskaraz, erdaretan nahi beste dago eta!

### "Komunean egiten dugu Egunean Behin"

**LAIDA SANCHEZ ETA ZUHAITZ LARRAÑAGA** GAZTEENETARIKOAK

Laida Sanchez eta Zuhaitz Larrañaga (Soraluze, 2011) jokalaria gazteenetakoak dira Soraluzen.

#### **Noiztik jokatzen duzue?**

Orain dela bi urte. Nire anaiak -Laida- jokatzen zuen eta zuri, Zuhaitz, nik esan nizun.

#### **Zuen adinekoak galdera-erantzunen jolasetan ez da oso arrunta.**

Institutuan taldea dugu. Denboraldia irabazten duenak 20 euro. Nik -Zuhaitz- bi aldiz irabazi dut baina behin eman didate dirua.

#### **Zenbat taldetan zabiltzate?**

L: Arranon, Soraluzen, gurean eta Gaztelekukoan.



Z: Horrek biak, lagunenean, auzokoan (Egn Bat Barrixuan) eta Athletik-Reala taldean.

#### **Ze mania duzue jokoarekin?**

Z: Komunean egiten dut gehienetan. Baina hobeto egin dudana partida izan zen behin

jende artean nengoela, zaratarekin-eta.

L: Nik ere komunean egiten dut. Han bakarrik zaude. Eguerdian etxera heldu eta bazkaldu aurretik.

#### **Zein galdera duzu gustukoan/gorrotan?**

Z: Zein ibai den kantauriar isurialdekoa eta halakoak, eta, segidak. Gorroto *nork idatzi du liburua hau?*

L: Saguarena dut gustukoan. Gorroto idazleena.

#### **Zer pentsatzen zaizue jokoak?**

L: Ondo dago. Euskadiko eta munduko gauzak ikasten dituzu.

Z: Eta lagunekin berba egiteko beste gai bat da. Pikea badago. Ibiltzen gara besteen puntuazioak begiratzen.

### "Pozten nau hainbeste jendek egitea"

**MARIA JESUS ARRIZABALAGA** NAGUSIENETAKOA

Maria Jesus Arrizabalaga (Soraluze, 1945). Egunean Behin Soraluzeko taldeko jokalaria nagusienetakoa da; nagusiena den ala ez ezin da jakin jokalaria batzuk "kamuflatuta" baitaude.

#### **Zenbat taldetan diharduzu?**

Etxeko taldean eta Plazentziako taldean. Puntuazioan erdian ibiltzen naiz, ze nik denboretan ezin dut konpetitu. Edade batetik aurrera denerako gaude motelak, etxeko lanak egiteko, ibiltzeko... eta hor ere bai.

#### **Zelan hasi zinen?**

Etxekoekin batera. Gustatu egiten zaizkit halako jokoak,



baina hau gehien, normalean hemengo gauzei buruzko galderak direlako.

#### **Ze mania dituzu jokoarekin?**

Almortzatzen egiten dut. Lehenengo gauza, almortzatu eta Egunean Behin egin,

norabaitera joateko presaka ez banabil, behintzat.

#### **Galdera gustukoena/zailena?**

Gustatzen zaizkit geografiari eta hemengo lekuei buruzko galderak-eta. Ez zait gustatzen, berriz, saguaren labirintua; denbora asko behar dut. Eta kanpoko artistei buruzkoak, ez ditut ezagutzen.

#### **Zer pentsatzen zaizu jokoak bera?**

Asko gustatzen zait. Jubilatuendako onak dira halakoak. Nik egiten dut Egunean Behin, autodefinituak batzuetan, Noticiasekoa, adibidez, eta, lagunekin kartetan jokatzen dut. Egunean Behin gustura egiten dugu eta poztan nau Plazentzian ere hainbeste jendek egitea.

## "Lanera sartu aurretik egiten dugu, batera"

**ARRATE ELIZBURU** ARRASATEN BIZI DEN SORALUZETARRA

Arrate Elizburu (Soraluze, 1991) Arrasaten bizi da, baina Soraluzeko Egunean Behingo taldean jokatzeko du. Hasieratik dihardu jokoan parte hartzen.

### **Soraluzen eta non gehiago?**

Arrasatekoan, Gasteizkoan... lauzpabost taldetan.

### **Galdera/erantzunen jokoalea zara?**

Bakarrik Egunean Behinena; Mihiluzek ere badu egiteko aukera baina ez dut egiten ordutegiarengatik. Egunean Behinek aukera ematen duenez egun osoan egiteko...

### **Baduzu pikeren bat?**

Gasteizko lanekoekin. Hor ibiltzen gara, ea zein hobeto



moldatu. Oraitxe bertan egin dugu, lanera sartu aurretik eta sailkapena begiratu dugu. Joan den astean joan zen taldeko bat Euskal Herriko lehena eta orain berarekin dugu pikea.

### **Ze mania duzu jokoarekin?**

Lanera sartu aurretik egiten dugu denok batera, ikusteko bata bestearen erantzunak, galderak, non sartu dugun hanka, sailkapena...

### **Galdera gustukoena/zailena?**

Zenbat urte dituen auskalo zeinek eta paisajeena. Dira bi gai ez ditugunak ulertzen. Gustukoak, berriz, Euskal Herriaren inguruan galdetzen dutenean eta erantzunak direnean ezagun samarrak.

### **Zer iruditzen zaizu jokoak?**

Euskararen aldetik super ondo. Eguneko momentu bat euskaraz bakarrik egiteko. Baina gero pikea sartzen zaizu eta nahi duzu egin bi aldiz edo hiru aldiz eta ezin da; baina jokoaren arauak horiek dira eta listo.

## "Euskaraz izateari balioa ematen diot"

**MIREN EXPOSITO** BERGARAN BIZI DEN SORALUZETARRA

Miren Exposito (Soraluze, 1983) Bergaran bizi da, baina Soraluzeko Egunean Behingo taldean jokatzeko du.

### **Soraluzen eta non gehiago?**

Laneko taldean, Bergarako taldean eta kuadrillakoan.

### **Zelan hasi zinen?**

Uste dut kuadrillaren bitartez izan nuela jokoaren berri. Gero, Pil-pileanek sortu zuen gakoa taldean sartzeko eta halaxe.

### **Galdera/erantzunen jokoalea zara?**

Telebistako galderen programak gustatzen zaizkit. Mihiluzen egonda nago.

### **Begiratzeko dituzu sailkapenak?**



Noizean behin, lanean topera nabil-eta. Modu sanoan, pike gabe. Enarak beti irabazten du kuadrillan.

### **Ze mania duzu jokoarekin?**

Eguna bukatzean, afaldu eta gero egiten dut. Hasieratik egiten dut. Normalean Gaur

Egun edo halakoren bat ikusten, telebista aurrean. Mobiletik egiten dut, tresna lagungarririk gabe.

### **Galdera gustukoena/zailena?**

Zein herri den ez dut inoiz asmatzen, askotan iritzira egiten dut. Zenbakiak edo Euskal Herriko mapan lekuak kokatzea gustuko dut.

### **Zer pentsatzen zaizu jokoak?**

Gustatzen zait. Gertukoia egiten zait eta pil-pilean dauden gaiez galdetzen dute. Euskaraz izateari ere balio handia ematen diot. Erderaz balitz, akaso ez nuke egingo. Bestalde, oso ondo eginda dagoela esango nuke eta gainera, Eibarko enpresa batek.

# Umeendako mendi-irteerak berreskuratu nahian

NATURAREKIN LOTUTAKO KIROL JARDUERAK SUSTATU NAHI DITU GURASO ELKARTEAK

## TESTUA: ANDER GOMEZ

Atxolin Guraso Elkartekoak ume eta gaztetxoentzako mendi-irteerei ekiteko prestaketetan ari dira. Izan ere, urte askoan zehar domekero Euskal Herriko medietara irteerak antolatzen zituen Soraluzeko Mendi Taldeak baina pandemiaren etorrerarekin, bertan behera geratu ziren eta harrezkero ez dira egin.

## Herriko mendialdea ezagutzen

Atxolin Guraso Elkartetik egin asmo dituzten irteerak Soraluzen bertan egingo dira, urrutira joan barik, azaldu dutenez, "garrantzitsua delako umeek lehenik eta behin gure

txokoak ezagutzea". Proposamenen artean daude Dolmenen Ibilbidea edo herrigunetik hasi, Iturbe baserritik pasatu eta Elgoibarrerainoko bidea egitea, esaterako.

Momentu honetan, ikasturte bukaerara arteko agenda errepasatuta, "zaila" ikusten dute baten bat antolatzea, baina udako oportunitat bueltan —eta zuzendaritza berria eratuta egongo delarik— gutxienez bi irteera antolatzen saiatuko direla agindu dute. Asteburu goizetan izango dira, domeketan seguraski, umeek zapatuetan dituzten partida eta bestelako hitzorduak zaintzeko.

## Udaberriko oporrak prestatzen

Horrez gain, *Domekak Aterpean* egitasmoan gertatzen ari zen parte-hartzearen beherakada ikusita, eta haur eta gaztetxoan aisialdiari begirako ekimenak ere koordinatuta eta elkarlanean bideratzeko, *Aisialdia Elkarrekin* bilgunea sortu dute Atxolin Guraso Elkartek, Kukumixo Aisialdi Taldeak eta Udalak. Hala antolatu dira azken hilabeteetako tailerrak, zinema emanaldiak, gabonetako hainbat ekintza... Orain, udaberriko oporretan egingo diren jarduerak prestatzen ari dira eta, besteren artean, naturarekin harremana lantzeko ekintzak eta irteerak antolatzeko asmoa azaldu dute.

## Erreleboa mendi taldean

2014. urtean hartu zuten Soraluzeko Mendi Taldearen ardura Gorka Tardiok eta Xabier Arribillagak. Aurten, zuzendaritza utziko dutela jakinarazi dute.

Egoera honen aurrean eta mendi taldeak martxan jarrai dezan, Jagoba Zubiaurre eta Galder Laskurain aurkeztu dira boluntario. Oraingoan, federakuntzen lana hartuko dute eta 2026ko txartelak



Soraluzeko Mendi Taldearen logoa.

egingo dituzte. Txartel hauekin istripua izanez gero aseguruia izango dute herriko mendizaleek, baita beharpenak mendi-aterpetan.

Hasiera batean konpromiso hori bakarrik izango duten arren, asmoa da bikote honek Soraluzeko Mendi Taldearen etorkizuneko zuzendaritza osatzea, Tardiok eta Arribillagak hamaika urtez egindako lanaren lekukoa hartuz.



Mendi gainean, 2016an. SORALUZE M.T.



Espeleologia egiten Deban, 2016an. SORALUZETIKO M.T.



Sagastarriko irteeran, 2017an. F. OREGI



2015eko Finalista Eguna. SORALUZE M.T.



2017ko finalistak San Andreseko frontoian. SORALUZE M.T.

# Leturiondoren hitzaldia

RAMON LETURIONDOK HITZALDIA ESKAINIKO DU SORALUZEREN HISTORIAZ

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIAK: PIL-PILEAN

Martxoaren 12an, Jendartekin egitasmoaren baitan, Ramon Leturiondok herriaren historiaren gaineko hitzaldia eskainiko du: 'Placencia de Soraluze hiribilduaren eraikuntza: Arkitekturaren bitarteko bilakaera historikoa' (XV. mendetik XIX. era). Hitzaldia, Tolarekua aretoan eskainiko du, goizeko 10:00etan hasita.

## Eraikinak eta bilakaera arkitektonikoa

Ramon Leturiondok Pil-pileani kontatu dionez, duela hilabete batzuk, Ana Rosa Maiztegi Udaleko zinegotzi eta Jendartekin ekimenaren bultzatzaileak gonbitea egin zion hitzaldi bat eskaini zezan Soraluzeke historiaren inguruan eta baiezkoa eman zion. Hala, martxoaren 12an, Leturiondok herriak XV. mendetik XIX.era bitartean izan zuen bilakaeraz



Arregia dorretxea Gabolats kalean.

jardungo du herriko eraikin zaharrak eta bilakaera arkitektonikoa oinarri hartuta: "Nola sortu zen gure herriaren hiribildua? Ze forma, ze baldintza zituen? Ni ahalegindu naiz gure herriaren bilakaera arkitektonikoa eta historia sintetizatzen, perspektiba orokor batez ikusten zein izan den gure herriaren bilakaera".

## "AHALEGINDU NAIZ ERAIKINEN BILAKAERA ETA HISTORIA SINTETIZATZEN"

RAMON LETURIONDO, HISTORIAZALEA

Artxiboetan egindako lana barik "behaketa lana" izan da bere iturri nagusia: "Hemen arkua

## Ramon Leturiondo plazentziatarra

Ramon Leturiondo plazentziatarra da (1953, Soraluze) baina Donostian bizi da aspalditik. Gaztetan filosofia ikasketak egin zituen Valladollden eta ondoren, irakasle moduan lan egin du, lehenik, Soraluzeke Ametsa Ikastolan eta, ostean, Hernaniko eta Donostiako

instituetan, artearen historia eta geografia irakatsiz. Hain zuzen, irakatsi dituen bi diziplina horiek historiarekin uztartu izan ditu beti: "Nahiago izan dut hiru diziplina horiek elkarrekin lantzea, faktoreak nahastu egiten direlako. Nire ustez ezinbestekoak dira historia ulertzeko".

Gaur egun, Donostiako 'Helduen hitza' izeneko elkarte batean parte hartzen du eta tarteka San Telmo museoaren gaineko azalpenak ematen ditu. Irteera kulturalak ere antolatzen dituzte Euskal Herri osoko geografia eta historia lantzeko eta haietan ere gida moduan jarduten du.



dago, hemen armarria, eta han beste zerbait”. Horrez gain, beste batzuek herriaren historiaz idatzi dutenetik ere jaso du informazioa eta testuinguru orokorragoak ere aztertu ditu, “Soraluze ez delako uharte bat”.

**Dorretxeak, jauregiak, eliza**

Edukia lau ataletan banatu du. Lehenengo atalean, herriaren “baldintza geografikoez” jardungo du eta XV. mendeko (Erdi Aroko) dorretxe eta jauregien ezaugarriez eta historiaz: Arregia dorretxea, Ormaetxea jauregia... Bigarren atalean, XVI. mendea aztertu du. “Mende horretan, Gipuzkoan eta Soraluzen planteamendu soziologikoa aldatu egiten da eta orduan hasten dira sortzen familia batzuk, karrera politikoa egingo dutenak, aberastu egingo direnak eta dorretxeen eskema



Armarria Mendikute dorretxean.

militarra atzera laga eta jauregietara pasatuko dira. Gaur egun ezagutzen dugun elizaren nabe nagusia garai horretakoa da, errenazentista. Erregetxe Zaharra ere, Errabal kalekoa, ordukoa da”.

**Eliz ataria, lertxunditarren etxea** Hirugarren atalean, XVIII. mendeari dagokion garaian, arkitektura erlijiosoa izango du hizpide: eliz ataria, alboetako nabeak, Santa Anako konbentua... “Eraikin horiek denak barrokoak dira”, Leturiondok azaldu duenez.

Azkenik, laugarren atalean, arkitektura zibilaz jardungo du: abadetxea, lertxunditarren etxea, Otolanekoa, Iturburukoa... “Independentzia gerraren ostean, XIX. mendearen lehenengo erdialdean, ilustrazioaren eraginez-eta asko eraldatu zen herria. Esaterako, ordukoak dira: hilerria, Plaza Berria, Zubi Nagusia... Neurri handi batean, gaur egun ezagutzen dugun Plazentziaren egitura garai horretan marraztu zen”, zehaztu du.

Adam, Erreterria  
24/11/18 Donostia Ospitalea

**Gipuzkoa egunero sortzen da.**

Pertsonen ongizate integral handieneko lurraldea izatea da gure asmoa.

**GIPUZKOA**  
Ekin. Zaindu. Bizi.

ZORION AGURRAK



**Markel Larrañaga Gallastegi**  
Otsailaren 18an, 10 urte. Zorionak Markel! Ondo pasau eta patxo haundi bat etxekuen partez, batez be Beñaten partez.



**Urrategi Gantxegi Unanue**  
Otsailaren 26an, 64 urte. Zorionak Amama! Urte on askotarako! Askok maitxe zaitxugu! Sara eta Julen.



**Iñigo Alberdi Amasorrain**  
Otsailaren 25ean, 52 urte. Kuadrillaren eta familiaren partetik, zorionak, Iñigo! Laster ikasi 52xak manejatzen.



**Ainara Gonzalez Armengol**  
Otsailaren 27an, 10 urte. Zorionak! Segi oin arte moduan, sorgintxo. Ondo ospatu zure eguna. Etxekoen partez.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Hildakoak**

Manuel Pato Gomez  
Felisa Lopez Venegas

**Jaiotakoak**

Fatou Sarr  
Ziyad Abbasi El Abbassi  
Dina Slimani  
Elaiia Zarobe Nauro

**Urte askotarako!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

**Internet**

Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [zorionagurrak@pilpilean.eus](mailto:zorionagurrak@pilpilean.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**ESKELAK JARTZEKO: 699 86 87 29**  
**edo [eskelak@pilpilean.eus](mailto:eskelak@pilpilean.eus)**

Hil diren herritarren eskelak, oroirgarriak eta urteurrenaren argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak (BEZ barne):

- ▶ Arrunta: 75 / Bazkideek 60
- ▶ Handia: 120 / Bazkideek 96

**Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.**



Centro Vasco de Estudios de Administración de Empresas  
Escuela de Estudios de Administración de Empresas



**ROSA Mª PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)**

Gure komunitateak enpresa bat kontratatu du eraikinaren fatxada berritzeko. Lanak bukatu dituzte, baina oraindik zenbait gastu ez zaizkio ordaindu enpresa eraikitzaileari, jabe batzuek oraindik ez dituztelako ordaindu obra-kuota guztiak. Batzuek jakinarazi dute ez dutela beste ordainketarik egingo. Jakin nahi nuke zer egin dezakegun kuota guztiak ordainduta ditugun etxe jabeok.

Alderdi hauek hartu behar ditugu kontuan: Jabekideen Komunitateak hartuko ditu bere gain hirugarrenetako dituen zorrak, bere alde dituen fondo eta kreditu guztiekin. Modu subsidiarioan, eta kasuan kasuko jabeari ordainketarako deia egin ondoren, hartzekodunak jo dezake kasuan kasuko prozesuan alderdi izan den jabearen aurka, ordaindu gabeko zenbatekoan dagokion kuotaren arabera. Jabeek ordainketari uko egin ahaliko diote, egiaztatzen badute komunitateko ordainketa guztiak egunean dituela.

**ONDORIOA:** enpresa eraikitzaileak komunitatearen aurka jo ahal izango du ordaindu gabeko zenbatekoa erreklamatzeko. Era subsidiarioan zuzendu ahal izango da ordaindu gabeko kuotaren zenbatekoa zor duen jabe bakoitzaren aurka, jabe horrek komunitateari zorra ordaintzeko betebeharra betetzea eragozten badi. Enpresak komunitatearekin kuoten ordainketa egunean duen jaberaren baten aurka jotzen badu, jabe horrek ordaintzeari uko egin ahaliko dio.



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2

**SORALUZE MOTOR**  
Mendiola ind. 13  
Sorluze  
476 554 817 - 943 75 21 38

**OKELIA HARATZEA**

- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko ganadua
- Etseko tripaiki, txistora, salbitza eta mingaina

Etzebarreta 5  
Telefonoa: 943 75 23 75

**Txoko**

Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburgerak, ogartekoak, radiak, pizzaak, gazaria...  
Enkarguak ogien dira  
Tel. 943 75 17 88

**MABEL**  
INERPAINDEGIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Errabal 1  
Tel.: 943 75 14 89

**IZAGUIRRE**  
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitateko emaitza  
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 013

**MGS**  
Seguros

Veronica Galarraga  
Gertuko eta segurua

Astelehenetik ostialera: Santa Ana 13  
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30  
☎ 645 744 055

**ODRI**  
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoak, pertsiak, ateak, barandak salmerita eta korponketa

**ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA**

T. 662 234 609  
Bagar Eneka Kalea 2 - 20090 SORLUZE  
e-mail: odrileihoak@gmail.com

**ION MURGIZU BAKAIKOA**  
PINTOREA

amuntak  
dekontaminazioa  
Industrialia

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

**Kontugest**  
GROUP

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea  
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa  
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

[www.kontugest.com](http://www.kontugest.com)

**HNOS. BENITO**  
ANIZIAK  
MUEBLES-ALTZARIAK

Sukaldeak, logelak, egongelak, neurri egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogla • Prentsa • Gosariak

Astelehenetik ostialera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbetak eta igandak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

**Belarrak**  
lana eta bihurtzen

Elkagai ekologikoak  
Etxerako zerbitzua

Santa Ana 22  
943 75 30 11

**KM design**  
Kitu Montatzen

943 75 99 85

Disinu eta Fabrikazio lanak

Sukaldeak  
Horma-oinarriak  
Logelak  
Zoruak  
Ateak...

Arotzeria lanak oro har  
Instalazioak

karumtoak@yahoo.es  
www.kmdesign.es

Pol. Amalaga 5  
BERGARA

**Soraluzeko Kooperatiba Elkarte**  
1910etik ezabak

Arraindegia, janaria, errapak, etseka freskak, etsera eramateko zerbitzua

Astelehenetik ostialera:  
08:30 - 13:30 eta 17:00 - 19:45  
Larunbetak: 08:30 - 13:00

Kalebarren 4  
Tel.: 943 75 13 45

Euskalzaletasunaren alde:

**aras** **ALBISUA** S.L. **laibi**  
ELECTRICIDAD

# Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



[www.antxustegi.com](http://www.antxustegi.com)



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAMIKA  
ETA HARRIA



LURDORU  
LAMINATUA



MARGOTZUTAKO  
PAREIA



BANAJOLA



BURDINDEIA



ERAGUNTZARIKO  
MATERIALAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industrialdea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692